



Ibilbide didaktiko osoa egitea gomendatzen dugu, proiektu erreal baten prestakuntzarekin lotuz, honako abantaila hauek izango baititugu orduan:

- Askoz handiagoak dira motibazioa eta asimilazioa ikasleen egunoroko bizitzako errealitateen gainean mugitzen bagara, ikasleen inplikazioa fisikoa ere bada.
- Proposatutakoaren moldeko proiektu batek ("gure herria") senideen, instituzioen... partaidetza aktiboa eragiten du. Hortaz, lagundu ere egiten die ikasleei beraien gizarte inguruan integratzen.
- Beste ikastalde edo beste herrietako ikastetxeetako lehia edo trukea ere ekar lezake dinamika honek eta, beraz, beste dimentsio batean zehaztuko du orduan ikaskuntza-irakaskuntza.